


*Ignacio Goitia, «Artea gozatu» programan parte hartzen*

## Topaketak margolariekin Aisiazko Ikaskuntzen Institutuan

Arteak gozatu proiektuaren barruan, hainbat margolari hurbildu dira Deustura. Martxoaren 7an, Ismael Iglesias; apirilaren 5ean, Daniel Tamayo; eta maiatzaren 9an, Ignacio Goitia izan ziren Aisiazko Ikaskuntzen Institutuko ikasleekin topaketak egiteko gonbidatuta hurbildu ziren artistak, ikastegi horrek artearen inguruan prestatutako etengabeko prestakuntzako programaren barruan. Bestalde, Deustuko Unibertsitateak Real Sitio de San Ildefonso aukeratu zuen bisitaldi tekniko gisa, Biltzar, Ekitaldi eta Azoken Antolaketako Unibertsitate Masterreko ikasle eta irakasleentzako aukerako bidaia egi+teko. Bidaia horretan elkartu ziren hainbat hiritako hogeita hamar ikasle. Helburuak hiru izan ziren: ikasleen prestakuntza osatzea, irakasleak birziklatzea eta profesionalak eguneratzea.